

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

784/20 prozedura laburtuan epea jartzea

A1 eta A2 taldeetako 2017/2018ko enplegu-eskaintza publikoko –Dokumentalista, A119 kodea– merezimendu-lehiaketaren faseko behin betiko emaitzen aurrean aurkeztutako gora jotzeko errekurtsua ezetsi zeneko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariaren 2020ko urriaren 2ko ebazpenaren kontra 44675300P nortasun-agiriaren titularrak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsua –784/20 prozedura laburtua– izapidetzen ari delarik Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 2 Epaitegia, bederatzi eguneko epea jarri da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bere interesetarako komenigarritzat jotzen badu bertara ager dadin, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 3an

Udal legelaria

AMAYA ALFONSO ACEBO